

## IZEN EMATEA

- **Zer gertatuko da aukeratutako txandan lekurik ez badu?**

Badaezpadako beste txanda batzuk aukera daitezke, 2. aukera, 3. aukera, ... etan beste txanda batzuk aukeratuz. Horrela txandaren batean lekurik izango ez balu, guk automatikoki aukerako hurrengo txanda esleituko genioke eta guraso/tutoreak abisatuko genituzke esleipena behin-betikoa izan zedin.

- **Izen ematerako garaian zeinek du lehentasuna?**

Formularioa betetzean behin-behineko izen ematea egingo duzu eta ondoren ordainketa ordenak emango du lehentasuna.

- **Taldekatu izen ematea egin daiteke?**

Haur desberdinak txanda berdinean egongo direla ziurtatzeko, banakako izen ematea bete behar duzue eta ondoren email baten bitartez zein haur taldekatu nahi dituzuen adierazi beharko diguzue.

- **Zer dokumentu aurkeztu/bidali behar ditut haur baten izen ematea egiteko garaian?**

- Osasun txartelaren fotokopia.

- Argazki baimena.

- Kotxean garraiatzeko baimena.

- Alergia edota intolerantzien fitxa. Hartu beharreko botiken fitxa.

- **Behin izen ematea beteta eta ordainketa eginda zer gertatuko da nire haurra baja bada?**

Txanda hasi baino 20 egun lehenago abisatzen bada kopuru osoaren %100a itzuliko da.

Txanda hasi aurreko 20 egun horietan abisatzen bada kopuru osoaren %80a bueltatuko da.

Behin txanda hasita ez da dirurik itzuliko.

- **Udaleku garaian haurrak botikarik hartu beharko balu, nola kudeatuko litzateke?**

Aurretik aipatu bezala hartu beharreko botiken fitxa bete eta tutoreak dosien zenbatekoa eta ordutegia zehaztu beharko dizkio udalekuen zuzendariari. Era berean udalekuen lehenengo egunean sendagaiak zuzendariari eman beharko zaizkio.



- **Nire haurra udalekuetan gaixo jarriko balitz zer egingo litzateke?**

Lehenik eta behin medikura eramango da eta guraso edo tutoreei deituko zaie jakinaren gainean egon daitezen. Medikiak botikaren bat hartzeko gomendatzen badigu, tutore edo gurasoei deituko zaie egoeraren berri emateko, eta botika hartzeko onespena emanaz gero medikuaren argibideak jarraituko dira.

